

EKINTZA IKASTOLAKO KIROL-INSTALAZIOEN ERABILERA ARAUAK.

0. SARRERA.

EKINTZA Ikastolako kirol-instalazio berrien eraikuntzak, udal-emakida 45 urterako eta obrak egitea geure kargu izanik, gure Ikastolaren kirol hornidurari aurrerapauso garrantzitsua ekarri dio. Egoera honek hainbat pertsona eta kolektibori instalazio hauen erabilera-eskaintza interesgarria egiteko aukera ematen digu. Hasiera batean, eskola-ordutegian (17,30ak arte), instalazioak ikasleen Gorputz Hezkuntzako klaseetarako erabiliko dira, baina ordu horretatik aurrera, beste batzuei eskaini ahal izango zaie, araudi honetan azaltzen diren baldintzetan.

1. INSTALAZIOAK ETA SARBIDEAK.

Eskainitako instalazioak honako hauek dira:

- a) Futbol 7an jokatzeko arauzko zelaia, belar artifizialekoa, *hockey*ren praktika ahalbidetzen duena.
- b) 200m-ko atletismo pista, material sintetikoakoa.
- c) Arauzko bi padel pista, estaliak.
- d) Sakibaloia edota areto-futbola praktikatzeko kirol-pista estalia.
- e) Frontoi estalia (25 m).
- f) Kirol-talde eta padel pisten erabiltzaileentzako aldagelak.
- g) Etorkizunean, instalazio berrien eraikinean dauden lokaletan, **aurreikusia dago 180 m²-ko gimnasio hornitua eta sozietate gastronomiko txiki bat egokitzea.**

Ikastolan bertan ditugun sarbideez gain, kanpotik sartzeko beste bi daude: lehena, Ikastolako aparkalekukoa, eta bigarrena, Lourdes-Txiki inguruan dagoena. Bi sarbide hauek eskailera eta igogailua dute.

2. INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ORDUTEGIA.

Aipatu den bezala, eskola-ordutegian instalazioak ikasleen Gorputz Hezkuntzako klaseetarako erabiliko dira. Kanpokoen erabilerako, ordutegia honako hau izango da:

Eskola-egunetan: 17,30etatik 21,30etara.

Eskolarik gabeko egunetan, larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan (*): 9,00-14,00; 16,00-20,00. Hau erreferentziako ordutegia da, eta erabiltzaileen beharretara egokitu ahal izango da.

(*) Jaiegun berezi batzuetan (Eguberria, Urte berri eguna...), instalazioak itxita egongo dira.

3. ERABILTZAILEAK.

Instalazio honen erabiltzaileak honako hauek izan daitezke:

- a) Eskola garaian larunbat goizetan Udal Kirol Patronatuak antolatutako partidetan parte hartzen duten taldeen kideak, esleipenaren Baldintza-Agiriak ezartzen duen lehentasunaren arabera.
- b) EKINTZAko Futbol, Atletismo eta Hockey Taldeak, Eskolaz Kanpoko Jardueren ordutegian ezarrita dagoenaren arabera. (18,30 arte beste taldeekiko lehentasuna izango dute).
- c) Instalazioaren bazkideak, diru-kopuru jakin bat, beraiantzat eranskinean azaltzen dena, ordainduta.
- d) Klubak, kirol eskolak, Erakundeak edota taldeak, eranskinean adierazitako diru-kopurua ordainduta.
- e) Bazkide ez diren besteak, arduradunaren datuak emanaz, eranskinean adierazitako diru-kopurua ordainduta. Dena delarik ere, bazkide ez diren adin txikikoek adin nagusiko bazkide batekin egon behar dute.

4. BAZKIDEAK.

Instalazioen erabilerarako bazkideak honako hauek izango dira:

- a) **Bere egoeragatik:**
EKINTZA FUNDAZIOA Patronatuko kideak, ikasleen gurasoak, jardunean dauden Ikastolako langileak, eta Batxilergoko ikasleak. Batxilergo 2.a EKINTZAn bukatzen duten ikasleek hurrengo ikasturtean bazkideetza mantenduko dute.
- b) **Bere kidezapenagatik:**
Izena eman eta Eranskinean adierazitako diru-kopurua ordaindu ondoren bazkide egiten diren lagun edo familiak.

5. BAZKIDETZA GALTZEA.

Bazkidetza gal daiteke honako arrazoi hauengatik:

- a) 4 a) ataleko baldintza betetzeari uztea, zeini esker jaso baitzuten bazkidetza. Baldintza hori ikasturte bukaeran galtzen duten EKINTZAko familien eta ikasleen kasuan, bazkidetza hurrengo abuztuaren 31n galduko dute, eskabidea egin ondoren kidezapenagatik bazkide izatera pasatzen direnak salbu.
- b) Hiru kuota segidan ez ordaintzea.
- c) Erabilera arauak behin baino gehiagotan ez betetzea.
- d) Instalazioak gaizki erabiltzea.
- e) Portaera desegokia.

c), d) eta e) kasuetan bazkidetza galtzearen erabakia EKINTZA FUNDAZIOAren Zuzendari-Kudeatzaileak hartu eta emango du ezagutzera, delako pertsona horri entzun ondoren; instalazioetan sartzearen debekua behin-behinekoa edo behin betikoa izan daiteke.

6. ERRESERBAK.

Instalazioak erabiltzeko erreserbak zuzenean edo telefonoz (943213683 zenbakira deituz) egingo dira, Ikastolako Idazkaritzan nahiz instalazioen arduradunarekin, eta ordutegia honako hau izango da:

Eskola-egunetan:

Ikastolako Idazkaritzan: 8-19

Arduraduna: 17,30-21,30

Beste egunetan:

Arduraduna: instalazioa irekitzeko ordutegian.

Klubek, kirol eskolek eta parekoek erreserba ikasturte edo kirol denboraldi osorako egin ahal izango dute.

Beste erabiltzaileek erreserbak behin bateko edo behin baino gehiagorako egin ahal izango dituzte, gehienezko epealdia eskola-hiruhilekoa izanik. Kasu honetan, erreserbak hiruhilekoaren aurreko hilaren barruan onartuko dira.

Pistak erreserbatzeko gutxieneko epealdia ordubeteko da. Gutxieneko hori beteta, ordu erdiko multiploak diren erreserbak onartuko dira.

Erabiltzaileek instalazioko arduradunak esleituriko aldagela erabiltzeko eskubidea izango dute.

7. ERRESERBA EZEZTATZEA.

Egindako erreserbak ezezta daitezke, dagokien ordainketa gauzatu gabe, baldin eta ezeztatzea gutxienez 48 ordu lehenago egiten bada, eta erreserba egiteko erabili izan den modu berean.

8. DIRU-KOPURUEN ORDAINKETA.

Ikasturte osorako edo denboraldi baterako erreserba egiten duten klubek, kirol eskolek eta parekoek dagokien diru-kopurua ordainduko dute EKINTZA FUNDAZIOArekin adostutako eran (normalean, hileroko aurrez ordainduta).

Gainerako kasuetan, eskudiruzko ordainketa egingo da, instalazioan bertan, erreserbatutako pista erabili aurretik.

9. INSTALAZIOAREN ARDURADUNA.

Instalazioaren zabaltze-aldian zehar, horren arduradun bat egongo da, sarrera ahalbidetu, dauden erreserben arabera pistak eta aldagelak esleitu, erabiltzaileen beharrei erantzun eta arauak betetzen diren begiratuko duena. Arduradun honek izango du agintea instalazioan.

10. JOKABIDEA.

Eskainitako instalazioak ikastetxe batekoak dira. Beraz, hau aintzat hartuz, instalazioen erabiltzaile guztiek jarrera eta portaera egokiak izan behar dute. Oro har, pertsona eta arauetako begirunea azalduko da. Bereziki, debekatuta dago alkohol edariak eta tabakoa kontsumitzea instalazio osoan.

ERANSKINA
INSTALAZIOEN ALOKATZE-PREZIOAK (ORDUBETE)
2013-14 IKASTURTEA

ERABILTZAILEA	FUTBOL-7	ATLETISMO	PADEL	KIROLDEGIA	FRONTOIA
<i>ENTRENAMENDUAK (FEDERATUAK)</i>	10 € + 6 € argia				
<i>PARTIDA OFIZIALAK</i>	14 € + 6 € argia				
<i>FUTBOL ESKOLAK</i>	44 (*) € + 6 € argia				
<i>BAZKIDEAK</i>	44 (*) € + 6 € argia	3 €/ pertsona + 6 € argia	12 € (argia barne)	25 € + 4 € argia	15 € + 2 € argia
<i>PARTIKULARRAK</i>	60 (*) € + 6 € argia	5 €/ pertsona + 6 € argia	20 € (argia barne)	40 € + 4 € argia	25 € + 2 € argia

(*) Erabilera-ordu kopuruaren arabera deskontuak egin ahal izango dira.

Bazkidetza eskuratzeko kuotak:

Banakakoa : 10 €/hilabete

Familiakoa: 25 €/hilabete

EKINTZAko familiak, langileak eta Batxilergoko ikasleak bazkideak dira berez. Era berean, Batxilergo 2.a EKINTZAn amaitzen duten ikasleek bazkidetza mantenduko dute bukatu ondorengo ikasturtean.

16 urtetik beherakoek eta bazkide ez direnek adin nagusiko bazkide batekin egon beharko dute; halaber, bazkideak egin beharko du erreserba eta bera izango da instalazioen erabilera egokiaren ardura izango duena.